

## Nafarroako sozietate publikoek ekitaldia positiboan itxi dute bigarren aldiz euren historian

- 2018ko ekitaldia 2,39 milioi euroekin itxi ostean, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (NEKP) urteko kontuak aurkeztu ditu eta, bigarrenez bere historian, positiboan itxi du. 2014ko ekitaldian Iberdrolako akzioak saltzean egon zen eragin ikaragarriaren ostean izan den bigarrena.
- Maila operatiboan (EBITDA) -amortizazioen eraginik eta finantza-emaitzen egozpenik gabe- Nafarroako sozietate publikoen jarduera zergarik gabekoa da orain eta 21,6 milioi euroren emaitza positiboa du.
- 17 milioi euroko banku-zorra ezeztatu da eta 48,7 milioiko inbertsioak egin dira.

**Iruñea, 2019ko ekainaren 26a** – Hiru urtez jarraian emaitzak hobetu ostean eta historiako bere emaitzarik onena lortu ostean, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (NEKP) -Foru Erkidegoko enpresa-sektore publikoko sozietate nagusia- urteko kontuak aurkeztu ditu, **2,39 milioi euroko emaitza positiboarekin**.

Horri esker, finantza-orekaren eta Nafarroako sozietate publikoen iraunkortasunaren bidea finkatzen da. Gogora dezagun 2016an galerak 5,07 milioioak izan zirela eta %86ra jaitsi zirela 2017an, 0,73 milioira, azkenik, 2018an zenbaki gorriak gaindituz egungo 2,4 milioi positiboetara iritsi arte.

Finkatutako kontuen itxiera positibo hori **Korporazioaren historian bigarrenez gertatzen den mugaria da**, 2014ko ekitaldian izandako 4, 6 milioien ostean (Iberdrolaren akzioan 30 milioiengatik saltzean egon zen eragin ikaragarriaren ostean).

Finkatutako emaitzan izandako garapen positiboaren arrazoi nagusiak operatiboaren eraginkortasunaren hobekuntza eta Navarra de Suelo y Vivienda, S.A. (NASUVINSA) sozietatearen emaitzak dira. Maila operatiboan (EBITDA), sozietate gehienek emaitza positiboak aurkeztu dituzte, 21,6 milioi euro positiborekin. Emaitza hori amortizazioen eraginik eta finantza-emaitzen egozterik gabe, **Nafarroako sozietate publikoen jarduera zorrik gabekoa eta denboran jasangarria denaren isla da**.

Enpresa-sektore publikoaren finkatutako aktiboen zenbatekoa 904,8 milioi eurokoa da guztira. Aktibo horiek 645,5 milioiko ondare garbiari esker finantzatuta daude ia bere osotasunean eta banku-zorpetzea 102 milioikoa da, aktibo guztien %11,27.

2018an, **17 milioi euroko banku-zorra ezeztatu da**, eta gainera 48,7 milioiko inbertsioak egin dira baliabide publikoen kudeaketaren irizpideei jarraiki.

2018an, finkatutako Taldearen batz besteko langileen kopurua 1.265koa izan da. 77 profesional gehiago aurreko urtearekin alderatuz gero. Ekitaldia ixtean, langileen %76 mugagabeak ziren eta oreka dago generoei dagokienez: %46 emakumezkoak dira eta %54 gizonezkoak.

### SOZETATE PUBLIKOAK, NAFARROAKO BIKAIN TASUN TEKNIKOKO ZENTROAK

Egun, Nafarroako enpresa-sektore publikoa [16 sozietate publikok](#) osatzen dute eta Nafarroako Gobernuak bikaintasun teknikoko zentro gisa izendatu dira. Euren helburua kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzea da, profesionaltasun eta baliabide publikoen kudeaketaren eraginkortasun irizpideei jarraiki.

Prestakuntza handiko 1.200 profesionalak osatzen dute eta hainbat profil dituzte sektoreko askotariko jarduerak garatu ahal izateko: aholkularitza, lehen sektoreko berrikuntza eta ikerketa; irtenbide teknologikoak, maileguen bidez enpresa-sarea laguntzea, inbertsioak eta abalak ematea; telekomunikazioen azpiegiturak eta azpiegitura informatikoak; enpresa-sorkuntzaren sustapena; erosteko edo alokatzeko etxebizitzaren sustapena; ibaietara isurtzen diren uren arazketa; lurralde-informazioko zerbitzuak (kartografia); garapen linguistikoa; kultura, kirol eta aisialdiko azpiegituren kudeaketa; basoen eta ingurumenaren kudeaketa; informazio sistemak; industria-lurraren sustapena; komunikazioa eta herritarren arreta; laborategia; katastroa; ogasun-zergen kudeaketa, etab.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKP) bidez, Foru Erkidegoko enpresa publikoen taldeko sozietate nagusia gisa, 15 enpresa publikotan eta parte-hartze minoritarioko beste 70 sozietatetan parte hartzen du.

Zuzenean sozietate publikoek kudeatutako proiektuak ezagutzeko eta gure egunerokotasunaren berri izateko, horietan lan egiten dugun langileok [www.SociedadesPublicasNavarras.es](http://www.SociedadesPublicasNavarras.es) bisitatzera eta gure sare sozialak jarraituzera (@CPENavarra en [Twitter](#) eta [Linked In](#)) gonbidatzen zaituztegu.

## ESTEKA INTERESGARRIAK

[Finkatutako urteko kontuak NEKP, 2018](#)

[Sozietate publikoen urteko kontuak \(banakakoak\)](#)

[NEKPen txertatuko sozietateak](#)

## NEKP-REN FINKATUTAKO URTEKO KONTUEN XEHETASUN-TAULA, 2018

Finkatutako emaitza NEKP Taldea 2018 (datuak €-tan)	Diru-sarrera operatiboak	Emaitza operatiboa	Zergen osteko emaitza	Bakun- zorpetzea	Bataz beste erabilitako langileak
Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.M. (CEIN)	2.102.483	94.445	61.611	0	32
Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A. (CNAI)	1.097.778	-23.680	-29.963	0	28
Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.M. (CAT)	10.162.295	1.959.439	342.117	0	3
Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M. (NEKP)	18.715.355	4.605.683	4.570.793	0	11
Gestión Ambiental de Navarra, S.A.(GAN)	7.092.410	713	-190.419	0	101
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A.(INTIA)	13.202.876	364.588	7.812	0	199
Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.M. (NICDO)	7.765.182	-1.086.099	-4.798.959	14.811.770	42
Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. (NASERTIC)	16.417.355	1.988.515	188.314	0	107
Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.M. (SODENA)	2.961.780	-3.839.432	-6.425.905	77.209.438	26
Start Up Capital Navarra, S.A. (START UP)	8.341	-130.876	-130.876	0	0
Trabajos Catastrales, S.A. (TRACASA)	6.842.235	471.779	231.235	0	86
Tracasa Instrumental, S.M. (TRACASA I)	18.088.776	338.394	353.152	0	368
Natural Climate Systems, S.A. (MIYABI)*	446.755	-5.009	-5.009	0	0
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A. (NASUVINSA)	59.090.708	12.055.003	8.493.326	9.494.496	108
Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA)	13.949.811	176.004	0	0	37
Potasas de Subiza, S.A. (POSUSA)	96.272	-94.728	2.172.285	0	0
Salinas de Navarra, S.A. (SALINAS)	18.368.642	4.751.827	2.391.539	0	62
<b>Sozietate Publikoak guztira</b>	<b>196.409.054</b>	<b>21.626.566</b>	<b>7.231.053</b>	<b>101.515.704</b>	<b>1.210</b>

NEKP (egonkortze doikuntza) consolidación	-4.783.837				
%50 Autopistas de Navarra, S.A. (AUDENASA)	10.540.952				
Parque de la Naturaleza, S.A. (SENDA VIVA)	-2.436.882		55		
Beste egonkortze eta ezabatze doikuntzak	-8.163.662				

<b>Finkatutako emaitza guztira</b>	<b>2.387.624</b>	<b>101.515.704</b>	<b>1.265</b>		
------------------------------------	------------------	--------------------	--------------	--	--

\* MIYABI sozietate gisa ezabatu zen 2019ko lehenengo hiruhilekoan.